

ELHUYAR

IRAILA 1975

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandrés*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Circulo de San Ignacio.-San Marcial, 26,bajo.-San Sebastián*

USTARITZEKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Aurtengo Udako Euskal Unibertsitatea amaitu berria dugularik, gertakari horrek iruzkin berezia duela uste dugu. Duela hiru urte Donibane Lohitzunen hazten hasi zen landare txiki hura, zuhaitz bihurtuz doa. Jendea gero eta parte handiago hartuz doa Unibertsitate hortan; aurten, denetara berrehundik gora izan dira Ustaritzen bildu direnak. Antolatzaileentzat pozgarri bezain akuilagarri dateke jendearen parte hartze hori. Horregatik, Euskal Unibertsitatea gai bezala harturik, zenbait gogoeta egitea komeni dela uste dugu.

Lehenik, aipa ditzagun parte hartu dutenen gorabeherak. Euskal probintzia guztietatikoak egon dira, nahiz eta batzutatikoak oso urri izan diren. Adinaren arabera aztertuz, gazteriaren nagusigoa agertu izan dela esanen genuke. Berrogei urtetatik gorako gutxi egon da, eta, egia esan, sentitu egin izan da zertxobait hauen hutsunea. Ezetortze horren arrazoiak zeintzu izan diren ez dakigu, baina ezetortzea bera kezkarria dela esanen genuke. Geroari begira, ezin pozgarriagoa da gazteriaren presentzia; baina, dudarik ere ez, ez zaigu inondik ere komeni, aurrekoekiko lotura etetea. Erreleboa hartu behar du gazteriak, noski; baina oraindik ba du zer ikas, adintsuago diren irakasleengandik. Eta Euskal Herrian ba dira, adintsuago izanik ere, zer irakats duten irakasleak. Datorren urteari begira, puntu hau kontutan hartzea komeniko litzateke.

Segi gaitezen, Udako Euskal Unibertsitate honen ezagugarri berezietariko bat aztertzen. Unibertsitateak Herriaren zerbitzuean egon behar duela entzun ukan dugu maiz. Orainsu arteko unibertsitateek – zentzu zabalean hitz egiten ari gara, eta ez aurreko Euskal Unibertsitateei buruz – nahiko ahantzirik zuten puntu hori. Zientziaren aurrerapenaren izenean, marfilezko dorretan bizi ziren zientzilariak, Herriagandik urrundurik. Ez dugu ukatzen, modu horretan herriko gizonari hainbat aurrerakunde etorri zaionik; ez horixe!. Baina, izatez, errebotez etorritako aurrerakundeak izan dira gehienetan.

Egun, eta ikertze bideei uko egin gabe, unibertsitatea Herriagandik hurbilago antolatu nahi dute zenbait unibertsitarik, eta horrela pentsatzen dutenak, gero eta gehiago direla esan behar dugu Herri mailara jaitsirik, Herriaren kultur maila jasotzeko eta Herriaren premiei erantzuteko.

Udako Euskal Unibertsitatea ere bide hortatik abiatu ikusi ukan dugu. Euskal Herriak, eta berarekin batera Euskal Kulturak, ba ditu premia ezagun batzu. Lehenetariko bat, euskara bizirik iraun eraztea da. Euskara biziko bada – eta hori nahi dugu –, gai guztietarako erabili beharko da; beraz, Unibertsitate mailan ere erabili beharko da. Premia horri, lehen mementutik erantzuten ari zaio Euskal Unibertsitatea, berau euskaraz aritzen baita.

Bestalde, Unibertsitateak erantzunkizun handia duke Ikastola mugimenduaren aurrean. Textuak prestatu behar dira, irakasleak prestatu behar dira, gure egoerari egokiturik dagoen pedagogia prestatu behar da, eta beste hainbat gauza ere egin behar da. Gure ustez, euskal unibertsitarietara eta Euskal Unibertsitateak ba dute hortaz lanik franko egiteko.

Esandakoaren bidetik, pozgarriak ditugu, beraz, jende arruntari eta andereñoiei begira antolatu diren behe mailako ikastaldiak. Modu hontan, inongo eskolatan hartu ez duten euskal prestakuntzaren oinarriak har ditzakete. Esperientzia txalogarri honek animatu egin behar gaitu, gure ustez, datorren urtean ikastaldi horik oraindik hobeki eta koherenteagoki prestatzera.

Unibertsitatea, ordea, ez da behe maila hortan geratu behar. Horrekin batera eta horrez gain, goi mailako lanak behar ditu, ikertze lanak. Unibertsitatean beti edukiko dukete beren tokia ikertze lanek. Beraz, segi gaitezen Unibertsitate bikoitz hori egiten, ikertzaile eta irakasle halebata.

Gaur eguneko Euskal Unibertsitatea hamabostaldi batetan barrena gertatzen da soilik, eta horrek ez du batere errazten, bertan ikertze lanak egitea. Baina oraingo Udako Euskal Unibertsitate horrek, urtean barrena

egiteko diren euskal egintza eta ikertzen eragile eta bultzatzaile izan behar du. Euskal unibertsitarien egintzak batuz eta antolatuz, Unibertsitatea ez da hamabost egun horiekin bukatu behar; aitzitik, urte osoan iraun behar du. Eta urtean zehar egiten ditugun egintzak eta ikerpenak, Euskal Herriaren egoera kontutan hartuz egiten baditugu, urte osoko Euskal Unibertsitatearen haziak ereiten ari gara. Eta azken batez, hauxe dateke Udako Euskal Unibertsitate horren helburua.

Elhuyar taldea, seinalaturiko bide hortatik abiatzen ari da. Modu hortan, zientzi saileko arduraduna egin zen, eta, esan bezala, bi mailatako ikastaldiak antolatzeaz arduratu zen. Esperientzia ederra izan da, eta hortik gogor ekin behar dugula ikusi ukan dugu.

Bukatu bezain laster, hurrengo urtekoaren antolakuntza moldatzen hasi gara. Asmoak aurrera doaz. Zer gertatuko ote da? Zehazki ez dakigula ere, geure eskuetan dugu, neurri handi batez behintzat. Lan egin dezagun urtean zehar, datorren udako beroekin lanaren fruitu umoak ikus ahal ditzagun.

ELHUYAR